

**BIZITEGI ERAIKINA**  
**D MAILA**

**ASKATASUNAREN HIRIBIDEA, 36**



**Egile eta data ezezagunak**  
(Udal Artxiboan ez dago eraikuntza proiekturik)

**Deskribapena**

Kantoiko eraikina birgaitze lanen ondorioz hustua. Erdisotoa, bastardea, lau goi oin eta bi jasodura ditu, mantsarda handi moduan. Harlanduzko fatxada. Bertan, behe oineko eta lehen oineko baoen ordena erraldoia, eta kareldun leihoak nabarmentzen dira.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (5. eta 6. goi oinak).
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
  - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.